

A T Z O K O

Andoain

eta andoaindarrak

4. zbk.

1999ko apirilaren 25a.

Santakrutzak



ANDOAINEN, BETI FESTAN!

Orain bezala lehen ere Santakruztek irekitzen zuten Andoaingo jai denboraldia. Maiatzean hasi eta irailan Sorabillakoekin bukatu arteraino jaia eta festa nonahi eta noiznahi izaten zen herrian. "Urte guztian bazen festa Andoainen", dio Mikela Ansak inguruetan andoaindarrok genuen fama gogora ekarrita. Izan ere, zerrenda luzea baitzen oso: Santa Krutzak aurrena, San Juanak gero, San Pedro Kaletxikin, San Fermin ere bai garai batean -bi urtez-edo ospatu ziren Bañtero auzoan-, San Inazio Etxeberrietan, San Esteban Goiburun, San Roke Buruntzan, Ama Birjinaren omeneko festak Sorabillan...

Horien artean, dena den, kuttunenak Santakruztek dituzte herritar askok; jai patronalak ez izan arren, Andoaingo festa inportanteenak dira andoaindar gehienentzat; garai batean ere bai.

Maiatzaren 3a bera, Santa Krutz eguna, egun handia izaten zen herrian. Lantegi guztietan jai ematen zuten, eta Andoaingo egutegietan beti agertzen zen gorritz. Beheko aldeko herritarrek bai behintzat, famili arteko bazkari handia egiten zuten egun horretan.

Festa inportantea baitzen oso. Joxemari Olazabelek azpimarratu duenez, "oso diru gutxirekin baina umore askorekin" prestatutako jaiak ziren garai bateko Santakruzak, eta arrakasta itzela lortzen zuten, herritarren artean bezala baita kanpotarren artean ere.

Festa horien atari-atarian gaudenez eta herriko jai guzti-guztiak orriotan biltzea ezinezkoa zaigunez, bada, maiatzeko jaietako buruzko oroitzapen eta pasadizoak ekarri ditugu gogora. Polit askoak dira denak; ikusiko duzue...

PROZESIOA ETA BANDERA JEITSIERA

Santakruzak hasten ziren prozesioarekin. Hura zuten hasiera ofiziala. Pasadizo haren nondik norakoak kontatzeko Joxe sakristaia baina hobirik ez da, eta harekek azaldu digu Santakruzteko segizioaren esanahia: "Maiatza da Ama Birjinaren hilabetea, eta festak hilabete horietan zirenez, prozesioan eramaten zen Ama birjina -San Martinen zegoenabere semea ikustera Gurutze



Joxe Eizmendi

"Maiatza da Ama Birjinaren hilabetea, eta festak hilabete horietan zirenez, prozesioan eramaten zen Ama birjina -San Martinen zegoenabere semea ikustera Gurutze Santuaren ermitara".

Santuaren ermitara".

Joxemari Olazabelek kontatu duenez, ez zen prozesio xume bat, guztiz elegantea baizik. "San Martin elizatik ateratzen ziren hor ziren denak: estandarteak, zazpi edo zortzi; aingeruak; monagiloak Andoainen ziren traje onenekin...; Señorita Doloresek jazten zituen, eta jartzen zizkien kapak, esklabinak eta ziren guztiak".

Apaiza aurrean zela, haiek denek Goikoplazatik Santakruzterainoko bidea egiten zuten. Han meza nagu-

sia, ziren ohore handienekin eman, eta berriz ere bueltan igotzen zen San Martinera. Behin segizioa bukatuta, udal korporazioak udaletxean herriko bandera hartu eta berriz ere beheko bidea hartzen zuen. "Korporazioak egiten zituen hiru biatje", zehaztu digu Joxemari Olazabelek; "prozesioan jeitsi, meza nagusia entzun ondoren igo eta bandera hartu, eta, berriz, behera. Alkatea, aginte makila eskuetan eta inguruan korporazio osoa zuela, jeisten zen Olajaunara eta han uzten zuen herriko bandera".

"Nik aditzera dudanez", gaineratu du Miguel Amasek, "Benito Garagorri alkate zenez geroztik izaten da ban-

dera Olajaunanean festek irauten duten bitartean. Bera, Olajauneko semea izanik, erabaki omen zuen han festak ziren bitartean herriko bandera bere etxean egotea, udaletxean egon beharrean". "Gerra baino askoz lehenagoko kontua da hori; izango dira 70 urtetik gora", zehaztu nahi izan dio Joxe Sakristaia.

Oraindik orain ohitura horri eusten zaio herrian, ez lehengo moduan ordea. Esate baterako, eskopeteroena ohitura berri samarra da... Mahaia- ren bueltan bildu ditugun guztiak bat etorri dira, gainera, esanez orduko bandera jeistea askoz ere ekitaldi "haundiagoa" izaten zela, "inportanteagoa".



Santa Krutz eguneko prozesioa Goikoplazatik Santakruzteko ermitara bidean.

BANDAREN KONTZERTUA

Santakruzetako ekitaldirik garrantzitsuenetarikoa izaten zen bandaren kontzertua. Urtero agertzen zen bandaren kontzertua jai egitarauan eta jendea gogoz izaten zen une horren zain. "Gogoratzen duzue? Banda militarra izaten zen gainera!", jakinarazi digu Joxepa Ormaetxea; "maila handikoa zen, elegantea gero!"



Joxepa Ormaetxea

"Gogoratzen duzue? Banda militarra izaten zen gainera. Maila handikoa zen, elegantea gero!"

"Joxepak ondo dionez", gaineratu du Joxemari Olazabalek, "banda militarra etortzen zen igande arratsaldean, 'en domingo de repetición'. Bere uniformearekin eta guzti jartzen ziren eta kontzertua ematen zuten". Baina jakina, militarrena gerra osteko kontua zen. "Eta ez pentsa e..., ez zen etortzen urtero; 'segun las perras que había' bakarrik...", zehaztu du Miguel Amasek.

Gerra aurretik ere, nolahi ere, maiz jotzen zuen bandak Santakruzetan. Loren Navarrok gogoan ditu bera artean txikia zela ikusi eta entzundako kontzertuak: "Gogoratzen naiz nola askotan etortzen zen banda; Banco Guipuzcoanoko aurre horretan ematen zuten kontzertua.

Hura baitzen jaigune nagusia, Kaleberria eta Zumea kaleak bat egiten duten bidegurutze huraxe.



Loren Navarro

"Gogoratzen naiz nola ni artean txikia nintzela askotan etortzen zen banda; Banco Guipuzcoanoko aurre horretan ematen zuten kontzertua.

"Orduan kotxerik eta bat ere nola ez zen...", dio Joxe Eizmendik.



1953an Andoaingo Udal Musika Bandari ateratako argazkia. Zutik: Joxemari Oiartzabal, Martin Huizi, Jose Carrera, Felix Sanz, Paco Etura, Periko San Juan, Jose Luis Etxebarria, Alberto Agirre (zuzendaria), Lazaro Otaegi, Mariano Arberas, Francisco Olasagasti, Bernardo Aizpurua, Joxe Mari Weill, Juan Loinaz, Angel Urrutia, Martin Etxebarria eta Eugenio Etxebarria. Makurturik: Angel Urrutia, Francisco Jalon, Luis Peña, Fernando Jalon, Luxio Aranburu, Jose Luis Ajona, Seve Garcia eta Juan Omeñaka.

PEPE ANDOAINEN KONTZERTUA

Jose Sanz. Herrian Pepito txurre-rua eta kanpoan Pepe Andoain. Soinujotzaile bikaina zen eta inguruetan sona handia lortu zuena gainera. Alde batetik bestera ibiltzen zen han eta hemen kontzertuak eskainiz. Santa Krutz egunez, baina, urtero eskaini ohi zuen kontzertu bat irratiz Andoaingo herriari eskainia. Izan ere, "oso herrikoa baitzen hura, oso andoainarra", Joxepa Ormaetxearen arabera.

Joxe Mari Olazabal: "Maiatzaren 3an, arratsaldeko hiruretan, beti,



J.M. Olazabal

"Maiatzaren 3an, arratsaldeko hiruretan, beti, 'concierto dedicado a Andoain' eskaintzen zuen irratiz, Radio San Sebastian katetik".

'concierto dedicado a Andoain' eskaintzen zuen irratiz, Radio San Sebastian katetik". Imanol Egibarrek azpimarratu duenez, irratia zegoen etxeak —orduan gutxitan baitzuten halakorik— jendez betetzen ziren Pepe



Pepe txurrerua edo Pepe Andoain, soinu-jole handia.

Andoainen kontzertua entzuteko. "Kaleak huts-hutsik geratzen ziren", zehaztu du Maria Esther Arrietak. Ondo gogoan du berak zein erreperitorio izaten zen: "Santa krutz martxa aurrena, Goiburu gero eta beste hiru bat pieza edo..."



M. Esther Arrieta

"Repertorioa izaten zen Santa Krutz martxa aurrena. Goiburu gero eta beste hiru bat pieza edo..."

"Goiburu pieza estrenatu zuen radiotikan Santa Krutz egunean, eta, gero, urte horretan bertan etorri zen San Esteban egunez Goiburun jotzea", gaineratu du Imanol Egibarrek.

ORKESTINA

Santakruzetako orkestinan ere parte hartzen zuen Pepito txurreruak, "Pepitok, haren anaia Mateok, Joxemari Oiartzabalek, eta Teodoro Txo-



Imanol Egibar

"Orquesta 'Los Alegres' osatzen zuten Pepitok, haren anaia Mateok, Joxemari Oiartzabalek, Ikatzak eta Tarragonak —azken bi horiek ez ziren andoaingarrak—.

peitiak osatu zuen orkestina (azaleko argazkian agertzen dira). Gero Ikatza eta Tarragona gehitu zitzaizkien —azken bi horiek ez ziren andoaingarrak—, esan digu Imanol Egibarrek. Orkestina 'Los Alegres' zuten izena. Haien ahairera suelto ibiltzen ziren

herriko emakumezko eta gizonezko gazteak dantzán. "Denetarik jotzen zuten: tangoak, baltsak..., pasodobleak ere bai; fox-ak..."; kontatu digu Joxemari Amutxastegik.

"Ez zen, ordea, orkestina nolanahikoa e?!", azpimarratu dute guztiek. Musika talde hura inguruetan zen onena zela kontatu digute, kalitate handikoak zirela musikari haiek.

Pepe txurreruaren orkestinaren aurretik, nolanahi ere, beste musikaririk ere aritu zen Andoaingen. Gogora ekarri dutenez, Ttanttuba soinu-jolea eta beste zenbait ere ibil izan ziren urtetan Santakruzetako dantzaldiak alaitzen.

Bandak bezala orkestinak ere Banco Guipuzcoanoko izkina hartan egiten zituen bere ekitaldiak aurrena —gerora, Beheko plazan ere jotzen hasi ziren arren—. "Jartzen ziren Artolane-

ko etxea eta gure etxeko eskaileren arteko tarte horretan, hantxe egiten zuten saioa", azaldu du Joxemari Amutxastegik. "Gogoratzen naiz", gaineratu du, "nola behin baino gehiagotan tranbia ezin pasa geratzen zen han..., eta barrukoak bitartean orkestina entzuten".



Joxemari Amutxastegi

"Denetarik jotzen zuten: tangoak, baltsak... pasodobleak ere bai; fox-ak..."; kontatu digu Joxemari Amutxastegik

ZINTA KARRERA

Zinta karrera urtetan izan zen Santakruzetako ekitaldirik berezietakoa. Herriko gazteak —mutil zein neska— zain-zain egoten ziren zinta karreraren une hori noiz etorriko. "Beno zintez gain korbatak eta galtzerdiak ere jartzen ziren", dio Miren Zarragak. "Bai andrea", gaineratu dio Iñaki Arregik "eta pikareska ere bai: sostenak ere ikusi izan ditut zintzilika".



Iñaki Arregi

"Zinta, korbata eta galtzerdiez gain pikareska ere jartzen zen: sostenak ere ikusi izan ditut zintzilika".

"Emakumeek egiten zituzten zintak, zein baino zein politagoak; bordatu eta guzti...", ekarri du gogora Maria Esther Arrietak. Imanol Egibarrek, berriz, kontatu du nola zinta horiek, korbatak eta denak egoten ziren Planttanekeok zuten dendako eskaparatean erakusgai: "Olanoneko panaderia nola dagoen orain? Ba han ondoan zuten dendan egoten ziren zintzilika. Han egoten ginen denak

begira, 'hau neska harena omen dek' eta 'beste hori beste harena' eta horrela. Izan ere, afana izaten baitzen zuk aukeratuko neskaren zinta ateratzea".

Zinta karreraren eguna iristerakotan, Maingoko iturria dagoen inguru horretan, etxetik etxera jartzen zuten soka luze bat, alderik alde. Komuneko paperaren barruko kartoiak jartzen ziren soka luze hartan zintzilika, eta barruan ezkutatuta, zintak. Mutikoen bizikleta gainean etorri behar izaten zuten, eta erori gabe, eskuetan zuten ziria zulo hartan sartzen asmatu. "Baina aurrena", gogoratu du Imanol Egibarrek, "Basterotik barrena bi buelta egin behar izaten ziren bizikletan; hala lortzen zen zinta karreraren parte hartze-ko txartela".

"Urtetan izan ditut Santakruzetan ateratako zintak etxean gordeta", gaineratu du Imanolek. "Maria Jesusenak izango ziren ba..." xirikatu dio albotik Miren Zarragak. "A, ez dakit norenak ziren, ez naiz gogoratzen", erantzun dio gainontzeko guztien barreen artean.



Imanol Egibar

"Olanoneko panaderia nola dagoen orain? Ba han ondoan Planttanekeok zuten dendan egoten ziren zintak zintzilika. Han egoten ginen denak begira, 'hau neska harena omen dek' eta 'beste hori beste harena' eta horrela. Izan ere, afana izaten baitzen zuk aukeratuko neskaren zinta ateratzea".



Zinta karrera jaietako ekitaldirik inportanteenetarikoak zen.

KORRIKA APOSTUA

Gaur egun bezala, garai batean ere, lasterketa urtero egiten zen Santakruzetan. Orain arte aipatu ditugun guztiakin batera hori izaten zen beste ekitaldi inportanteenetakoa. "Santa Kruzko zubitik atera, Txistokiko zubiraino joan eta Allurraldetik barrena, Sorabillara; Errotako base-rritik Azelaingo zubia pasa eta handik buelta berriz kalera...; hiru itzuli edo egin behar izaten ziren", gogoratu du Imanol Egibarrek. "Garai hartan autobiarik ez zen klaro, eta etxerik eta ez zegoenez, korrikalariek egiten zuten buelta oso-osoa ikusten zen Zumeatik", gaineratu du.

"Joxe Belokik behin baino gehiago irabazi zuen apostua. Orduan 'campeón de Guipuzcoa' baitzen",

esan du Joxemari Olazabalek. "Joxe Bernardo Arruabarrenak ere makina bat aldiz lortuko zuen trofeua...", zehaztu dio Miguel Amasek.

Baina irabazleentzat ezetik, galtzaileentzat ere izaten zen saririk Miren Zarragak gogoratu duenez. "Azkena iristen zenari ematen zioten txuleta bat. Eta badakizue zer egiten zuen nere anaiak? Errotako



Korrika lasterketa. Erdikoa Joxe Antonio Iturriotz da.

ala hartu, Sorabillara pasa eta apropos azkena geratu... Txuleta ematen zioten horrela."

FERIAK

Feriak ere aspaldi-aspalditik etortzen dira Santakruzetara, hutsik egin gabe. Jada gerra aurretik tiobiboak behintzat izaten zirela gogoratu dute gure koadrila honetako zaharrenek. "A bai! tiobiboak oso ziren Santakruzetakoak; oso klasikoak jaietan", gaineratu dute Iñaki Arregi eta Joxemari Olazabalek. Hantxe jartzten zituzten Bekoplazako izkinean, juxtu-juxtu arbolak libratuz. "Arbola bat ere bota zuten behin feriak kabitzten ez zitzaizkielako", Iñaki Arregik gogoratu duenez.

Gerra ostean, apurka, feriak ere osatzen eta hobetzen joan ziren.



Miren Zarraga

"Gogoratzen naiz nola behin, balsak edo deitzen zen feria hartan estraperloan aritzen zen bat hasi zen builaka 'más fuerte!', 'más fuerte!' eta feriako arduradunak horixe, 'más fuerte' eman...: Han joan zitzaion 'moño San Antonio' dena airean... estraperlo guztia erre-kara!"

Tiobiboez gain, lantxa moduko batzuk bueltaka-bueltaka aritzen ziren feria ere hasi zen etortzen herri-ara. Feria horrekin, hain zuten ere, badu anekdota polita Miren Zarragak: "Gogoratzen naiz nola behin, balsak edo deitzen zen feria hura jarri zuten Beekoplazako izkinean. Han igo zen bat estraperloan aritzen zena 'Moño San Antonio' batekin -repelo deitzen zitzaion peluka moduko bat zen, eta azpian estraperloa ezkutatzeko erabiltzen omen zuten batzuek-. Hasi zen builaka 'más fuerte!', 'más fuerte!' eta feriako arduradunak horixe, 'más fuerte' eman..., han joan zitzaion 'moño San Antonio' dena airean... estraperlo guztia erre-kara!"

Imanol Egibarrek ere badu beste anekdota polita: "Garai hartan Santakruz bezperan mutil koadrila guztiak egiten zuten afaria. Zumea inguruko taberna guztiak betetzen ziren. Ba afari horietako baten bueltan "Kaskasoila" artzaina, Intsusain eta haren koadrilakoak, bete-bete eginda, hasi ziren probatu behar zutela esanez. Han jarri ziren katetan: belozidada hartu zuen eta bueltaka-bueltaka gelditu gabe hasi zenean gorputz txarra jarri, klaro. Han aritu omen zen Kaskasoila 'paro!', 'paro!', 'paro mareo! oihuka. Mareatu eta denak bota omen zituen!"



Umeak dantzan Bekoplazan.

BERTSOLARIAK

paldi-aspaldiko kontua da bertsolariena. Gerra lehertu baino askoz lehenagotik izaten zen bertso saioa Santakruzetan. Joxe Mari Amutxastegik kontatutakoaren arabera, "ber-



Roke Ansa

"Ni gogoratzen naizela, etortzen ziren Xepai eta Uztapide".

tsolariak izaten ziren Olajaunaneke balkoitik aurreko balkoira. Bat jartzen zen batean eta bestea bestean, eta han aritzen ziren jo eta fuego".

"Ni gogoratzen naizela", gaineratu du Roke Ansak, "etortzen ziren Xepai eta Uztapide". Izan ere, garai hartan ez baitzen gaur egun dagoen bertsolari piloa. "Gaur egunean futbolista baino bertsolari gehiago daude-eta!", dio Miguel Amasek. "Garai hartan, berriz, Xepai, Uztapide eta Baserri ibiltzen ziren plazaz plaza. Tartekarteka Iparraldeko Mattin eta Xalbador ere etortzen ziren inguru haueta-



Joxemari Amutxastegi

"Bertsolariak izaten ziren Olajaunaneke balkoitik aurreko balkoira. Bat jartzen zen batean eta bestea bestean, eta han aritzen ziren jo eta fuego".

ra. Baina horiek besterik ez ziren; eta Santakruzetara ere horiek etortzen ziren".

DANBORRADA

Ohitura nahiko berria da danborradarena, Santa Krutz elkartearen sorrerarekin bat jaioa, 1954 urtean. Miguel Amas elkarte horretako aspaldiko kideak gogoratu digu nola hartu zuen elkarte horrek festen antolaketaren ardura. "Garai batean festak Zumeakoak ziren; auzo hartan egiten zen festa eta hangoek antolatzten zituzten. Baina Artola, Juantxo Arregi, Joseba Barandiaran, Juan Bautista Zunba eta koadrila horrek

gorabeheraren bat eduki zuten Udaletxearekin, ez baitzien laguntza handirik ematen; izan ere, garai hartan dendaz denda eta tabernaz taberna gaur egun baino askoz gehiago ibili behar izaten baitzen diru eske. Ezinean-edo erretiratu egin ziren. Santakruzteak eduki zuten, hala, bi urteko geldiuenea; festa izan zen, baina prozesioa, musika banda eta 'se acabó el carbón!'. Orduan Manuel Zatarainek, Joxerramonenean biltzen zen mutil-



Santa Krutz elkarteko danborrada. 1958 urtea.



'Patxi Haundia', lehenengo danborradako zuzendaria.

zahar eta koadrila harekin, proposatu zuen festak antolatzea. Otrukoa da Peña Santa Cruz".

Festen berpiztearekin batera sortu zen Santakruzetan danborrada egiten hasteko ohitura. "Manuel Zatarain bera joan zen Donostiara eta ekarri zituen danborrak eta denak...; entsaioak egin genituen Iparragirre-neko goian eta hala atera ginen lehen aldiz kalera", gaineratu du Miguelek.

BATELAK



Miguel Amas

"Lehenengo urtean antolatatu genituen Piraguak. Gero hasi ziren gabarrak. Horietan atera ziren Bastero, Zumea, Kaletxiki eta Etxeberrietako auzotarrak. Eta gogoan daukat bandera gehien Kaletxikikoek atera izan zituztela".

Batelak ere garai hartakoak dira, gutxi gorabehera. Estropadak egin aurretik, ordea, piragua eta gabarra apostuak egin zituzten Oria ibaian. "Lehenengo urtean antolatatu genituen Piraguak", dio Miguelek. "Gero hasi ziren gabarrak. Horietan atera ziren Bastero, Zumea, Kaletxiki eta Etxeberrietako auzotarrak. Eta gogoan daukat bandera gehien Kaletxikikoek atera izan zituztela. Aurreneko urteetan gaizki ibili zen, baina gero etorri zen hara panadero bat arraunlaria zena, eta harek erakutsi zienez..., ba klaro 'en el lugar de los ciegos el tuerto alcalde'. Haiek atera zituzten bi bandera, Etxeberrietakoak ere bai bakarren bat...; eta Zumeakoak eta guk bat ere ez!"

Auzo mailako apostu haien ondoren hasi ziren batelak antolatzen. Sekulako arrakasta lortu zuten estropadek lehen urtetik hasita, eta ibaia zabaldu eta hondoa garbitu zuten arte antolatatu ziren urtero, hutsik egin gabe. 1985an egin ziren estropadak azkenekoz; ordurarte 31 bandera jokatu ziren.

"Batelak, gabarrak bezala, egiten ziren bi igandetan", jakinarazi du Miguelek; "lehenengoan egiten zen



Estropalariak Santakruzko banderarekin.

kanporaketa eta bigarreanean, bandera. Baina gero federazioa sartu zen tartean eta orduan igande bakarrera mugatu zen".

Mahaiaren bueltan eseri diren guztiek gogoratzen dute nolako maila handia lortu zuten estropada haiek. "Ertortzen ziren onenak, Kantauriko denak!", diote. Hori dela eta, iragan gertuko Santakruzetako ekitaldirik garrantzitsuenetzat dute horixe. "Ertortzen zen jende pilooa bi igande horietan. Eta ez bakarrik Andoaingoa e!: pasaitarrak, oriotarrak..., eta herri horietako guztietako jende asko eta asko etortzen zen", azpimarratu du Joxemari Olazabalek; "xulorik ez zen izaten batelak ikusteko".

"Bai, inportanteak ziren oso, baina tranpak ere egiten ziren e! eta ikaragarriak gainera!", dio Joxepa Ormaetxeak. Eta arrazoi du Joxepak; beti ez baina tranpa noiz edo noiz egin omen zen. Bat behintzat ondo gogoan dute guztiek: "Andoainen batel bat ere ate-



Joxemari Olazabal

"Ertortzen zen jende pilooa bi igande horietan. Eta ez bakarrik Andoaingoa e!: pasaitarrak, oriotarrak... Eta herri horietako guztietako jende asko eta asko etortzen zen. Xulorik ez zen izaten batelak ikusteko".

ra zen; arraunlari onak baziren: Leizeaga ta, Oiartzabal ta...; eta jakina, haiek irabazi egin nahi. Kanporaketako igandean lehenengo atera ziren. Bigarrengoan, baina, ziabogari buelta egin beharrean aurretik hartu zuten itzulia. Nork eta Peña Santa Cruzeko batelak! Juezek esan zieten buelta behar bezala hartzeko, artean bandera irabazteko denbora bazutela, baina haiek kasorik egin ez. Hura eskandalua hura sortu zena!: arraunlariak bandera irabazi zutela esanez eta juezek ezetz. Pentsa: juezak Peñaakoak bertakoak ziren eta bertako batelak tranpa egin zuela esanez!"

Imanol Egibar bera epaile lanetan ibili zen urte hartan. Gogoratu du nola, orain kostaldean egiten diren estropadetan bezala, garai batean ere Andoainera korredoreak etortzen ziren, apostulariak. "Klaro Andoainen jende askok jokatu zuen dirua batel haren alde, eta tranpa egin zuela esan genuenean sortu zen Jesukristorena!"

Andoaingo arraunlariak, hala ere, jarraitu zuten hurrengo urteetan ere estropadetan parte hartzen, harik eta uholde batzuek elkarte azpian gordetzen zen batela eraman zuten arte. "Hor bukatu ziren andoaindarraren saioak...", amaitu du Miguelek.



Guztira, 31 bandera jokatu ziren Oria ibaian.

... ETA HURRENGO ALEAN ZER:

Auzoak. Horixe izango dugu maiatzean hizketagai. Andoaingo Udalerriko mendi auzoak alde batera utzita, herri bertako auzoei erreparatuko diegu; bereziki, Kaletxiki, Bastero, Zumea eta Etxeberrietari. Auzo horiek garai batean nolakoak ziren; zer denda, taberna eta sagorde-tegi zeuden... eta batez ere bertako auzotarrak nolakoak ziren ekarriko dugu gogora. Etxeberrietakoak bihurriak omen ziren, Basterokoak borrokazaleak, Zumeakoak diplomatikoak... ikusiko duzue nola hurrengoan ere kontakizun polit askoak ekarriko ditugun orriotara!



Zuk ere bildu nahi al duzu gurekin?

Andoaindarra bazara, aspaldiko kontuei buruz jardutea gustoko baduzu eta hiztuna bazara estimatuko dugu zure konpainia. Hilean behin biltzen gara kontu-kontari aritzeko. Proposamenak tentatzen bazaitu, deitu 300732 telefonora eta jarri gurekin harremanetan, ados?



Manuel Larramendi
Kultur Bazkuna



Andoaingo Udaleko
Euskara Lansaila



Andoaingo Udala



Eusko Jaurlaritza

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Sailordetzaren diru laguntzaz, Andoaingo Udalak ordaindutako argitalpena

Argitaratzaileak: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna Andoaingo Udaleko Euskara Lansailaren ekimen eta dirulaguntzaz. **Zuzendaritza eta erredakzioa:** Jone Larrañaga. **Maketazioa:** Eva Garcia. **Argazkiak:** Udal artxiboa, La Salle ikastetxeko artxiboa eta Manu Mujika. **Inprimaketa:** Sortu grafikagintza (Zizurkil). **ISSN:** 1139-7497 **Lege gordailua:** SS-1594/98. **Tirada:** 3.000 ale.